**ERREPORTAJEA** ELGOIBARTARRAK OPORRETAN · **GEHIGARRIA** JOSE ARENASI ELKARRIZKETA

**KIROLA** PILAR ARRIOLAK "AIRE LIBRE CORRICOLARI" MENDI MARATOI ZIRKUITOA IRABAZI DU


# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko irailaren 14a/IX. urtea/375. zkia




MUSIKA ESKOLA BERRIA

# Elgoibar musikaz beteko duen etxea

"SOINUGILIAREN ETXIAN, ORO DANTZARI" (Esaera zaharra)


BASKO RENT
GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKA1RUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabilioiak
MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!
TAILERRA
GARBIKETA
400pta.
GARBIKETA LIKOA
AUTOMATIKOA
MANTENIMENDU OROKORRA OUO, BAIAZTA
Eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRAIA
GARBIKETA
BEREZIA
700pta.
GARB1KETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
500pta.
SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE


HIZKUNTZ
Ingelesa, Alemana, Frantsesa, Holandesa, Portugesa, Italiera e.a.
SOLUZIOAK
IRAILETIK HASITA
2001-2002 KURTSOKO
IKASTAROAK
Maila guztiak
Titulu ofizialak
Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
Talde murriztuak
Ikastaraak atzerrian
Multimedia gela
ENPRESA
ITZULPEN ETA
INTERPRETAZIO ZERBITZUAK
Esperientzia zabala duen lan taldea
•Teknikaa [makine-erreminta)
•Komertziala
eNlazioarteka proiektuak
Goi-teknologiaren erabilera
Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
Prezio lehiakarrak
Matrikula epea zaball«
INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES
IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa,
E-maila: Ils@ils.es
Te1.943 744 040 Faxa:943 741 654



## Non dago Willis?

2001. urteko irailaren 11. Gure salako sofan jarrita, gerra eta hondamendi irudiak zuzenean ikusi genituen eguna. Biharko historia liburuetan agertuko den data odoltsua, inoiz Estatu Batuei bere lurraldean egindako erasorik bortitzena gertatu zen eguna. Flollywoodeko film bat ikusten ari ginela pentsatu genuen askok. Baina handik ez zen Stallone edota Bruce Willisik agertu.

CNN telebista kate ahalguztidunak berak nahi izan dituen irudiak eskaini dizkigu, Irakeko gerran egin zuen bezalaxe. Interneten ere gertatutakoa zuzenean jarraitu ahal tzan da mundu osoan zehar. A ze paradoxa! Teknologian punta¯puntako izango gara, baina funtsean gizakiok ez dugu aurrera egin azken hiru mila urteetan gutxienez: elkar joka jarraitzen dugu, dinosaurio hezurrekin, harriekin, armekin edota misilekin, berdin da.

New York eta Washingtongo hondamendiak gertatu ondoren, osaba Sam boteretsuaren erreakzioak markatuko du biharko historia liburuetako hurrengo kapituloa. Norbaitek ordaindu beharko du. HaIa esan zuen Bushek asteartean bertan, Nebraskako bere babeslekutik. Erraldoiek gaindiezina dela erakusten jarraitu nahi du, eta errudun ala ez, norbait zigortuko du. Eta bonbek berriro ere milaka herritar hilko dituzte, telebistaz ikusi ala ez. Jende arruntak ez dauka babeslekurik. New Yorken, Washingtonen, Afganistanen, Iraken edota Libian, azken finean, galtzaile kaleko jendea izango da, gizarte zibila. Beti bezala.

**Montse Arregi**



## Txukuntasuna?

Herri aurreratuenetako ezaugarri garrantzitsuen artean, ingurugiroari dioten begirune edo errespetua dagoela esango genuke, ezbairik gabe. Zenbat eta ingurune garbiagoa, orduan eta bizileku atseginagoa.

Diotenez, gure herria ekonomia, industria eta beste zenbait gaietan Europako askoren pareko ei da. Txukuntasunean, ostera, atzeraka gabiltzala ematen du. Egin dezagun atzera osteratxo bat gure kale eta ibai inguruetara eta berehala ikusiko dugu narraskeria ugari, astegunetan gehienbat.

Kalean zehar apurtutako edalontziak, botilak eta zikinkeria franko, jendea edozein kale bazterretan txiza egiten, zarra-zarra, txakurren moduan, inguru guztian txiza usaina zabaltzen. Eta ibaira begiratuz gero, hor ageri dira: aulkiak, burdinezko hesiak, garagardo bidoiak... eta plastikozko komuna ere bai. Itxuraz kalean traba egingo zuen eta jende indartsuak ibaira bota du.

Anabasa hau ikusita, horra hor nire galdera: Bertakoak ala kanpokoak ote dabiltza horrelako kirtenkeriak egiten? Beharbada, jende ikasia eta karreraduna izango da horrelako lanak egiten dituena, baina gizabide kaskarrekoa.

Baten batek esan zuen Euskadi martxa onean doala.

Txukunagoak bagina, hobeto.

**Juan Mari Elustondo**

nr

Kexak ................................................ 5
motz A,lotz 10
gehigarria li
kiRolAk ......................................
aGenda ...................................... 24

2001-IX- 14

# Urruzunoren
## begi ezkutua



Prentsari... Amen!!!

Ihuzente egunerako propivak diazen berrixak hasiko gera sinisten dida batian. CNNko txistoso batek, :1040 Karakaten extralurtarrek diskotekia jarri dabela kontatuko dau, ta...hori be...tragau!!! Tragauko dou!!!

Baina...igual...Karakateko bidia dakixan norbaitten besora oratu, ta dantzalekua han daguan egiaztatzera igoko zinan horrelako kontuak entzundakuan. Ala? Hori be itxu-itxuan sinisteko prest?

Gaztetxietaz, extraterrestien ipuinak kontatzia modan dago. Itxu-itxuan sinistuko dozu super-komunikabidiek kontatzen daben dana? Txikitxuen bertsivak handixenekin alderatuko dittuzu? Izan zeu izan .Itxu izan hasi.

**Amaia Urzelai Barrutia**

AGUR SABIN:

Herritar bat betirako aldentzen denean, gure herriaren historia zatitxo bat berarekin darama. Handi edo txiki bere historiatxoa. Sabin Arriolak ere berari dagokiona eraman digu.

Besteak beste, txirrindularitzan afizionatu mailan punta-puntakoa izan zen eta Gipuzkoako txapeldunorde izatera ere iritsi zen. Baina, bere lorpenak ez ziren honetan bakarrik gelditu. Pelotan hasi zen beranduago eta afizionatu mailan lehenetarikoa izatera ere iritsi zen. Profesionaletara ere pasatu zen, azkenean, eta handienekin eta onenekin aritu zen pelotan. Gerora ere, bere zaletasuna ageri-agerian zuen, bai txirrindularitzan eta baita pelotan ere.

Espetxea ere ezagutzeko "suertea" izan zuen Sabinek. Azken guda garaian oso irrati gutxi ziren Elgoibarren eta hauetariko bat Goiko Errotan zegoen. Sabin eta sei-zazpi herritar bertara hurbiltzen ziren irratia entzutera. Baina norbaitek salatu egin zituen, eta ondorioz, espetxea ere ezagutu zuen. Ostegun Santu egunez espetxeratu zuten. Delitua eta eguna aproposak biak ere espetxeratzeko.

Gerora, industria gizon bezala oso ezaguna izan dugu. Elkar ondo ezagutzeko aukera ere izan dugu. Neuk oso estimatua nuen eta berak ere hala ninduela uste dut, Beti arte Sabin.

**Fellx Etxeberria "Parapan"**

RITZA oa ESKIATZAK dolo

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO113AR
o 943744112
Publizitatea:
943 74 37 04
Faza: 943 74 37 04
E•maila:
barren@topagunea..corn
Helbide informatikoa:
www.topagunea.corrubarren
AaarrkrurzAkEA
Elgo,barko Izarra

ELGOIBAKKO IZARRA
mrox," .141,11.

LAGUNTZAILEA EI9C,Zbarkt) Udala ZU1ENDARLA Eli Aizpuru KkzarAnuor Irat Agirreazaldegi, Asier Orbea PUBLIZRATUAndoilz Agirregomezkorta MAKEARAILEA Bea AnsolaAokressumaos Amaia Rodrigez GEREMIA Jon Peli UrIguen. KoLkoodarzarukk Amaia Lanz, Unal Argarale, Egazkiiie Aranbeni, Lorea Perez de Albeniz. Jokin Martinez, Ador Zabaleta, Leire Urkidi, Olga Unzila, Montse Arrepi, Juanito Garostiza, Iker Maguregi, Jon Gunutxaga, Jon Eugt, Ainhoa Andanegi, Kokae K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESALDIA Gotzon Garate INPRIMATIGIA Garls Koop. E. TIFIADA 4.090 me LECIE GORDAILUA ES-1.038192 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlarazako Kultura Sailak eta FortrAldundiak diruz lagundurako aldizkaria.*

kutxa
ef.ke,
LNDANOBAT
GOITI
GRUPO DANOBAT
gloymput

• **Musika Eskolako ikasleak diren hiru neska gaztek Musika Eskola berria lortzea posible egin duten guztiak txalotu nahi dituzte: "Musika** tresna guztiak leku finko batean edukitzea eta leku horrekin identifikatzea oso ona izango da guztiontzat". Bestalde, Musika Eskolako ikasle eta irakasle guztiak ere txalotu nahi dituzte.

## (.111z.Ax

• **Herritar batek** larunbat arratsalde askotan ikusi ohi duena **salatu nahi du: "Guraso askok Kultur Etxian aurrian daozen eskulturen gainian ipintzen ditxuzte euren umiak.** Nere ustez eskultura horrek ez daoz bertan umiak jolasteko. HoIakorik gehixao ez ikustia espero dot".

• **Gizonezko batek** deitu digu **San Bartolomeak amaitu baino lehen lantoki batzuetan lanean ari zirela-eta kexatzeko: "Jaixak** errespetau ein bihar zian. Nere ustez urteroko kalendarixua jaixen arabera egokitxu biharko litzateke. Txarangia, oporrak amaitxu diala-eta lanera hasteko garaixa dala esateko etaratzen da kalera, baina zein zentzu daka horrek jendia aurretik lanian baclao?".



• Herritar batek **Bernardo Ezenarro kalean, Madalako kale berrian, norabide batean autoak aparkatzen dituztela-eta** kexa ipini nahi izan du BARRENen. "Karril bat okupatuz gero, bi aldeentzako karril bakarra geratzen da eta besteekin ere pentsatu behar da. Zerbait egin behar da, batez ere asteburuetan", esan digu emakume honek.

# EigoibartarraK
## MUNDUAN ZEHAR

### COSTA RICA



**Nerea Odriak** eta **Juanma Sacedak** 14 egun egin dituzte Costa Rican. Ekainean ezkondu ziren eta aurretik ezkonbidaiarako planetan beste leku batzuk sartzen baziren ere, lagun batek Costa Rica gomendatu zien eta baita joan ere. Nereak oso gustuko ditu animaliak eta horrekin lotu nahi zuen bidaia: "Kenya edo Costa Rican artian dudan egon ginan. Neri asko gustatzen jataz animalixak eta asko daozen Iekuren batera jun nahi naban. Lagun batek Costa Rica oso politxa dala esan zian eta konbentzitxu ein ginan". Hizkuntzarekin arazorik ez izatea ere Costa Rica aukeratzeko arrazoietako bat izan zela aipatu digute. Klima tropikala denez, hezetasun handia eta beroa dagoela esan digute baina hiriburuan, San Josen, adibidez, giroa atseginagoa omen da. Horrelako lekuetara bidaiatzerakoan txertoak hartu behar direla ere entzun izan dugu. Nereak eta Juanmak ez zuten horrelakorik egin, "agentzian bakunatzeko esan ziguten eta hortaz informatzeko. Guk lagun batzukin hitz egin genduan eta ez zauala arriskurik esan ziguten. Ez genduan bakunarik hartu,. antitetanikia bakarrik. Ura ere botilakua bakarrik erateko esaten dabe, guk danetarik edan dogu eta ez dogu problemarik euki".


VIAJES
**BILBRO EXPeE55**

BIDAIA **AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA**
Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12




# Bidaietatik u ltai



*"Non gogoa han zangoa" dio esaerak. Askoren gogoa oporretan bisitatu dituzten herrietan badago ere egon hemen daude berriz ere lanera bueltan etorrita. Gero eta jende gehiago atera ohi da oporretan alzerrira, leku berriak ezagulzera. Penintsulan bertan geratu dira batzuk, Europako hainbat txoko bisitatu dituen eigoibartarrik ere bada eta baita beste kontinente baizuetara abiatu denik ere. Oporretan herritik kanpo ibili diren elgoibartar batzuen bidaiak ekarri ditugu orrialde hauetara. Jakin baclakigu askok izango dituzuela kontatzeko gauzak baina bi besterik ez ditugu aukeratu. Turkian izan dira batzuk eta Europako hainbat leku bisitatu ostean iparralderaino, Finlandia eta Noruegara heldu dira beteak. Hemen geratu direnei inbidia piska bat emateko-edo hona hemen kontakizunak.*

## Turkian biziklataz

Turkian pasa dute abuztua Igor Arriolak, Illigo Bastidak, Betiat Bilbaok, Iosu Guefletxeak eta Oier Iriondok. "Lehendikan Asiara juteko gogua geneukan, Siria aldera edo Turkiara. Turkiara juteko ez da bisaurik bihar eta abioiko biajia ere merkiaua da. Siriara jun nahi izan ezkero enbajadara bisaua eskatu bihar gendun eta ez zan segurua noizko ailegauko jakun, eta bueluak reserbatzeko aurretik ibiltzia komeni da. Azkenian bost lagun animatt eta Turkiara jun ginan bizikletak hartuta". Ifiigok esan digunez, "ni aurretik Grezian eta Israelen egonda nauan eta erdiko parte hori ezautzia zan nere asmua".

**"Autobusian kafia eta ura zerbitzen ditxue, azafato bat dao eta refreskatzeko kolonia ematen dabe"**

Turkiako kosta eta erdialdea bisitatu dituzte, bizikletaz etapa batzuk eginez eta distantzia luzeetarako trenak edo autobusak erabiliz. Beraien oporretako egun bat kontatzeko eskatu diegunean horrela laburtu digu Igorrek: "Goizian freskua zauanian piska bat bizikletan ibili, 40 kilometro-edo, eta eguardi partian deskansua. Geratu, bazkaldu, siestia bota, bainu bat hartu, herrixa ikusi... Arratsaldian berriz ere bizikletia hartu eta lo itxeko Ieku aproposa topatzen genduanian herri haretan itxen gendun paradia".

Estanbulen hasi eta Mediterraneoko kostatik hegoalderantz abiatuta, bertan bizikletaz zein autobusez ibili dira. Handik Capadociara joan eta bost egun igaro ondoren, trenean beste zonalde batera joan dira Kaukaso aldera. "Autobusak oso ondo daoz. Hemengo rutakuak bezelakuak dia baina kafia, ura... zerbitzen ditxue, eta refreskatzeko kolonia ere ematen dabe; gainera merkia da".

*Goizez bizikletaz etapa bat egin ostean, herri edo hiriak bisitatzeko aprobetxatzen zuten eguerdi partea.*



Bidaia honetatik bertako jendearekin izan duten harremana izan omen da gauzarik onena. "Oso majuak dia. Beti egon da Turkuekin kontuz ibiltzeko mito hori, baina guk ezautu ditxugunak behintzat oso irikixak zian. Te bat hartzera inbitau izan gaitxu batek baino gehixaok". Kostaldeko berorik eta eltxorik ezean bidaia primerakoa litzateke, bi gauza horiek izan baitira eragozpen bakarrak. Bestalde, Turkian oraindik ere erlijioaren menpe bizi den jendea badagoela nabaritu dute. "Ez da Republika Islamikua eta gobernuak ez da obligatzen, baina familixa tradizuagatxik-edo goitxik beheraino beltzez jantzitako emakume batzuk ikusten dia".

### Menu merkeak

Iateko eta lotarako ez dute inolako arazorik izan. "Egunian hiru aldiz jaten gendun, eta nahiko

# n, burua oporretan



*Oier Iriondo, losu Guenetxea, Beftat Bilbao, Igor Arriola eta Iñigo Bastida hegazkinez Turkiarajoan eta bitartean bizikletaz ibili dira.*

ondo eta merke gainera. Bi plater, postria, ura eta ogixa 300 eta 400 pezeta artian pagatzen zitxuan bakoitzak". Lotarako ere herrira iritsi ahala topatu dute lekua. "Herri batera ailegau eta hotela bazauan han itxen gendun lo. Plaian ere in dogu lo egun batzutan".

Jendeari Turkia ezagutzeko gomendioa luzatu nahi diete. "Edozein planetan juteko preparauta dao. Hostal kutriak ikusten dia, baina baitxa lau edo bost izarretako hotelak ere.

**1.500 km. bizikletaz**

Bizikletaz guztira hilabetean 1.500 kilornetro inguru egin dituzte

**"Beti egon da Turkuekin kontuz ibiltzeko mito hori, baina guk ezautu ditxugunak oso irikixak zian"**

eta aparteko arazorik ez dutela izan esan digute. "Bi pintxazo bakarrik euki ditxugu eta jausi ere gutako bat behin bakarrik jausi da, lehenengo egunian, Estanbulen. Beherakua ere danok euki dogu, eta igual hori izan da problema bakarra". Euskaldunekin ere topo egin omen dute Turkian, Elgoibarko bikote batekin esaterako.



*Elgoibartarrik ere aurkitu zuten Turkian bost gazte hauek.*

## Tionez Earopako iparraldara

Eider Mujika elgoibartarra eta bere mutil laguna Abel Arriaga ondarrutarra trena hartu eta Europan zehar Noruega eta Finlandia inguruetara iritsi dira, baina bidean Copenhage, Viena, Paris, Amsterdarn... ere bisitatu dituzte. Hau guztia hiru aste eta erdian motxila lagun eta Inter Rail txartela eskuetan hartuta. "Abelek Finlandian Iagunak ditxu eta bertara jutera animau ginan eta oso ondo pasau dou".

Askotan entzun izan dugu gazteek bidaia prestatu gabe eraman ohi dutela eta bidean aurrera egin ahala hartzen dituztela erabakiak. Hauen kasua ere antzekoa da: "Gutxi gorabeherako ruta bat inda euki anen, trenen ordutegirik ez geneukanez, herri batera ailegautakuan erabakitzen gendun handik nora jun, zein tren hartu... Komeniko jakun



*Eider mufika eta Abel Arriaga.. Amsterdant hiriartp:*

**"Gutd gorabeherako ruta bat inda eruan arren, herrietara ailegatzerakuan erabakitzen gendun nora joan"**

hasieratik ordutegixen liburu bat eukitzia, baina Estokolmora arte ez gendun lortu. Tokiren batetik alde in dogu eta gero konturatu gera egun gehixao pasatzia merezi zabala. Berlinen, adibidez, hiri modernua dala ikusi gendun eta merezi dabala beste egunen baten bueltat0zia. Finlandiara ere berriz juteko esan digute gaberdiko eguzkixak ikustera".

Gutxi jan omen dute eta baita inbidia apur bat pasatu ere. Lotarako, berriz, ondo moldatu dira: "Biaje luziak in ditxugunez, gau bat albergian pasatzen genduan eta hurrengua trenian lo itxeko aprobetxatzen genduan. Hasieran Iiteretan lo itxia tokau jakun, beste baten kez betetako erretzailien bagoian..., baina bestela ondo moldau gera. Barkuan ere ibili gera, Estokolmotik Helsinkira pasatzeko ferry bat hartu bihar da-eta".

Noruega eta bertako paisajeak gustatu zaizkie gehien Eider eta Abeli. "Nahiko gora igo ginan, tren gehixao ez zauan lekura arte. Trenez



Fiordtuetatik itsasora arte jaitsi ginan, sekulako kaskadak ikusiz. Gero barko txiki baten fiorduetatik pasau ginan eta handik autobusian Bergenenintz".

**"Finlandian negua oso gogorra izaten danez, handik zela urten pentsatzen bizi dian**

Bertako jendearekin harremana izan dute eta nola bizi diren ezagutzea interesgarria izan omen da. "Dakaten mentalidadiakin harritxuta geratu gera. 21 urtekin bakanik bizi dia, gobernuak ikaslieri Iaguntzak ematen dizkietelako. Gainera, neguan etxian hainbeste denbora pasatzen dabelako-edo gauza guztieri buniz, pila bat dakite. Baina neguan oso gaizki pasatzen dabe eta handik zela urten pentsatzen bizi dia. Estazivak zela aldatzen dian ikusteko gogua dake. Finlandian alkoholismo arazo haundixa dao, asko suizidatzen dia eta dibortzio kopurua ere altua da".



**Elgoibartarrekin topo**

Gezurra badirudi ere euskaldunak Ieku guztietan omen gaude. Noruegako diza batean eta etxera bueltan zetozela Parisen, Elgoibarko beste bikote batekin egin zuten topo. Mundua bere handitasunean txikia dela erakusten du horrek.



**Milaka pertsona hil dira EEBBetan izandako atentatuetan**

# EEBBei EGINDAHO ERASOEN IZANGO AL DUTE ERAGINIK MUNDU MAILAN?



### ISMAEL ARENAS

**54 urte, montadorea**

Bai, eta ez oso onak gainera. Burtsak behera egiten ari dira eta makina erremintako enpresek Estatu Batuetara ere esportatzen dutela jakinda, Elgoibarren bertan ere izan dezake eraginik.

### RUBEN CID

**22 urte, elektrizista**

Bai, eragina izango duen zalantzarik ez daukat, batez ere arlo ekonomikoan. Gainera, Estatu Batuek beste bonbaren batekin erantzun dezaketela uste dut





### MARINA COLINA

**60 urte, etxekoandrea**

Bai, dudarik gabe. Estatu Batuek erruduna nor den jakitean, herrialde horren aurka egingo dute. Kalean ez da nabaritzen, baina industrian izango du eraginik.

### MAITE TORINOS

**32 urte, etxekoandrea**

Bai, batzuk jadanik nabarmenak dira. Gasolinaren prezioak gora egingo du denbora gutxi barru, eta hori dudarik gabe laster igarriko dugu Euskal Herrian ere.





### ALBERTO GRANDE

**20 urte, elektrizista**

Bai, batez ere ekonomikoki, mundu zabalean bezalaxe baita hemen ere. Estatu Batuek txanpon berberarekin erantzungo dutela uste dut.

### NATALiA CORONADO

**33 urte, dendaria**

Bai, ondorio ekonomikoak zein politikoak izango ditu. Ekonomian petroleoak gora egingo du. Politikoki, berriz, arabiarrekin ez dago jakiterik zer gerta daitekeen. Guk prezioen igoeran nabarituko dugu.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE
IZENA EMATEAN 9oi OEKO BEHERAPENA
9404de C14/1 44 ~ Otleta te0444 16 olfetelept.
LARRAÑAGA
A U T DES O L A
Tel: 943 74 10 11

# Mintxetako igerilekuak zabalik izango dira eguraidiak lagatzen duen bitartean

## Abuztuaren 30ean inauguratu zituzten eta aurtengo udaran sarrera doan izan da

Herritar batzuk oraindik jaietako biharamunarekin ziren bitartean, beste batzuk abuztuaren 30a Mintxetako piszinak inauguratzeko aprobetxatu zuten. Ostegun eguerdian, Alkatearen lehen bainu ofizialarekin zabaldu zituzten kanpoko igerilekuetako ateak, eta izan zen jaietako ajea kentzeko asmoz bertaratu zenik ere.



*Alkateak hartu zuen Mintxetako igerileku berrietan lehen bainu ofiziala*

Oraindik lanak erabat amaituta ez badaude ere, eguraldiak lagatzen duen bitartean zabalik izango dira piszinak. Udaletik esan digutenez, udako igerilekuak izanik, orain, uda garaian inauguratzeko erabakia hartu zuten. Gainera, Debako hondartza itxi dutenez, elgoibartarrei udako eguraldiaz gozatzeko aukera ematea izan da piszinak orain inauguratzeko arrazoia. Igerileku inguntak egokitzeko lanak gero egingo dituzte, eta behin amaituta, berdeguneak, aldagelak, taberna txiki bat eta haurrentzako parke bat izango dira bertan. Hori da beraien asmoa eta datorren urterako lan guztiak amaituta eta igerilekuak modu txukunean egokituta jartzea espero dute. Orain arte bertara joan direnek ez dute sarrerarik ordaindu behar izan baina gainontzeko igerilekuetan bezala gero seguru asko ordaindu egin beharko da, nahiz eta tarifak oraindik zehaztu gabe egon.

### Negoziazio luzeak

Asko izan dira obrak lehenago zergatik hasi ez zituzten galdetu duten herritarrak eta erantzunaren bila Udalera jo dugu. Hau izan da beraiek eman diguten azalpena: "Udalak 740 milioi pezeta zor ditu eta piszinak egiteak 138 milioi pezetako kostua du. Gastu horri ezin zaio aurrekontu arruntarekin aurre egin, eta dirua Albitxuriko zabortegia saldu ondoren jaso da. Beraz negoziazioak luzeak eta astunak izan".

# Cuzcorako dirua biltzeko elkartasun denda San Bartoloineetatik zabalik dago

## *Barricadak* kontzertua eskainiko du Egoibarren Peruko herri honen aide

Opor aurretik eman genizuen Misqui taldeak Peruko Cuzco herrirako dirua biltzeko antolatutako zozketaren berri. Izandako arrakasta ikusita, jasotako materiala saltzeko denda ireki du San Frantzisko kalean (lehengo Ortueta zapatadendan). Dendako bi eskaparate txikietan ikusgai dagoen materiala zozketako lehen saria izango da hainbat erosketa txartelekin batera. Txartelak okela, janari, barazki, zein tatuaje baten truke aldatu ahal izango dira. Bigarren saria 2 pertsonarentzako afari batek eta 5 kilo txuletak osatuko dute. Hirugarren sarian, berriz, afariak eta 4 txuleta izango dira. Gainontzeko materiala salgai dago ohikoa baino prezio merkeagoan.




AZPILIKUETA

*Errifak saltzeaz gain, jaietan txozna jarri zuten eta* Barricadaren *kontzertua ere iragarri dute dirua biltzeko.*

Dendariez gain, herriko jendeak ere eman ditu produktuak zein arropak. Gainera, inor ezer emateko prest badago oraindik ere gauzak jasotzen ari dira. Denda astean bi edo hiru egunetan egongo da zabalik, arratsaldez. Bestalde, Elgoibartik kanpora ikasten edo lanean ari direnei deia luzatu nahi diete enifak saltzen laguntzeko.

Errifak saltzeaz eta elkartasun dendaz gain, jaietan txozna jarri zuten dirua ateratzeko eta gabonetara bitartean beste ekintza batzuk ere egingo omen dituzte. Data oraindik zehazteke badago ere Barricada taldeak kontzertua eskainiko du Elgoibarren Cuzcoko herriaren alde eta bere diska berriko kantak entzuteko aukera izango dute zaleek.

Kostuak kostu igerilekuak martxan dira eta herritarrok badugu eguraldiak laguntzen digun bitartean bustialditxo bat non hartua.

## Malaysiako 12 teknikarik metaimekanika OrifkKO ikastaroa amaitu dute IMHn



Joan den irailaren 7an amaitu zuten Malaysiako 12 teknikarik Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan zortzi hilabetez egin duten ikastaroa. Fabrikazio mekanikoa, mantenimendua, montajea eta diseinu industriala landu dituzte, baita inguruko zenbait enpresa eta ikastetxe bisitatu ere. Datorren urteko martxoan beste 12 teknikari malaysiarrek ere antzeko ikastaroa jasoko dute IMHn.



## Kilo eta 350 gramoko tomatea jaso dute Aranbeltz baserrian

Alazkikoa Urruzuno bailarako Aranbeltz baserriko Antonio Bastida da, eta esku artean duena haserriko ortuan jasotako tomate ederra, kilo bat eta 350 gramo pisatu zituena. Handia izateaz gain, badu bere istorioa tomate honek. Urtero, Gabonetan, Tuterako (Nafarroa) Esclavas de Cristo Rey komentuko Magdalena Agea mojak hainbat opari bidali ohi dizkie Aranbeltzekoei, tartean baita tomate haziak ere. Hazi hauetatik ateratako tomateak 400 eta 700 gramo artekoak izan ohi dira gehienetan, baina honako hau salbuespena izan da. Bedeinkatua, beraz, tomate honetatik aterako den entsalada.

## Animazio laburmetraien saioa eskaini zuen Andres Elizondok Ongarriren eskutik

Ikusentzunezkoak ikusteko aukera izan ohi da noizean behin Elgoibarren, baina Elgoibarren bizi den Andres Elizondo eibartarrak joan den asteazkenean eskaini zuena berezia izan zen. Bere irudimenetik sortutako irudiak eta berak ateratako argazkiak nahasiz mezu inplizitodun istorio harrigarriak sortu ditu. Batzuk animazio hutsezkoak dira, marrazki bizidunen modukoak. Filma laburrak sortzeko teknika ugari, erabili ditu. Ongarrik Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz antolatutako saioa izan zen.



p.2gl ek IRAILAREN 22an iw9

Elgoibarko Foruen Plazan

Ordutegia: 10:00etatik 13:30era

11CAN c·L' LL

tr ,WrKXKU,P

ELGGIBARKO MERKATARI eta ZERBITZU ELKARTEA

BABESLEAK: Eusko Jaurlaritia Art"T Egolbarkg ildala

10:00etatik 13:30era

Txankakuaren feria. Elgolbarko Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteko produktu eta zerbitzuen erakusketa eta ***salmenta.***

Haurrentzako parkeak

Txu-txu trena

Haurrentzako taiterrak

Haurrentzako animazioa

01'1.1111

*50.000* pta.tako saria

# Inauguratu da Elgoibarko Musika Eskola berria

## Guztira 18 geia, 2 ikasgela, fonoteka, auditorioa, entsaio gela eta dantzarako gela daude

Pasa den asteko eguaztenean, irailaren 5ean, inauguratu zen Elgoibarko Musika Eskola berria. Inaugurazio ekitaldian Gillermo Garate Elgoibarko Alkatea, Manolo Santos Musika Eskolako Lehendakaria, Joseba Garmendia Zuzendari Pedagogikoa, Roman Sudupe Diputatu Nagusia eta Mari Jose Zubiaurre Zuzendari Administraria izan ziren.



*Erretratuan, ezkerretik eskumara, Mari Jose Zubiaurre Musika Eskolako Zuzendari Administraria, Gillermo Garate Alkatea, Manolo Santos Musika Eskolako Lehendakaria eta Roman Sudupe Diputatu Nagusia.*

Txistulariek eta dantzariek egin zieten harrera kanpo aldean eta behin barruan, zinta mozteari ekin zioten. Herriko parrokoa den Benantziok edifizioa bedeinkatu ondoren, auditorioan ospatu zen inaugurazio ekitaldia. Aretoa jendez bete zen eta hizlariek ordubete inguruan Musika Eskola berriaren inguruan egin zituzten berbak adi-adi entzun zituzten.

**Inazio Bereziartuaren partiturak**

Izan zen momentu hunkigarririk ere. Mikel Azpiazu jauna hitz egitera irten zenean bereziki. Bereziartua musikalariaren laguna zen Ixaka Azpiazu, semeak Elgoibarko Musika Eskola berriari oparitu zizkion Inazio Bereziartuaren partiturak. Mari Jose Zubiaurreren esanetan "esanahi handia du honek guretzat. Sortu zenean, Musika Eskolari Inazio Bereziartuaren izena ipini zitzaion, baina ez geneukan beraren ezer. Orain partitura orijinalak ditugu". Ekitaldi amaieran Tere Laspiurrek aita Donostiren "Preludio"-a jo zuen pianoan.

### Mikel Azpiazuk Inazio Bereziartua musikalariaren partiturak oparitu zizkion Musika Eskolari

**500 ikasle**

Aurten 500 ikasle matrikulatu dira, gutxi gorabehera. Eguerdiko 12:30etik 21:00ra arte zabalik egongo da ikasturte osoan. 18 gela eta 2 ikasgela dituzte ikasleentzat lau solairutan banatuta. Beheko solairuan idazkaritza dago eta beste hirutan banatzen diren geletaz gain, fonoteka, auditorioa, entsaio gela eta dantza gela ditu.

# Andoni Mujika Munduko Gazte Orkestran jotzeko aukeratu dute

## Bera da Euskal Herritk eta Estatu osotik hautatutako bakarra

Andoni Mujika Munduko Gazte Orkestrak aukeratu du bertako gazteen artean tronpa jotzeko. Munduko Orkestra, hitzak berak dioen bezala, mundu osoan aukeratutako gaztez osatuta dago. Bihar bertan, hilak 15, aterako da Andoni Erromara, Bertan, hiru astetan zehar entsaioak egingo dituzte eta azkeneko astean kontzertuak ere eskainiko dituzte Erroman.

Andoni Chicagoko orkestrako partaide bati esker izan da aukeratua munduko 90 gazteren artean. Pertsona honek bere izena eman baitzien hautatzaileei eta ondorioz, proba batzuk egin zizkioten. Kasualidadez, gainera, Andoni Italian aurkitzen zen probak egiterako orduan. "Toki adekuauan nauan eta momentu adekuauan. Demaseko suertia izan dot", esan digu Andonik. Izan ere, udan Italian egon da astebeteko ikastaro bat egiten eta bide batez probak egiteko aukera izan du. Lerro hauetatik zorterik onena opa diogu Andoniri!



*Andoni Mujikak Gazte Orkestrarekin batera entsaiatuko du Erroman. Kontzertuak ere eskainiko dituzte.*

# BARREN

ASTEKARIA

HILLEKO ELKARRIZKETA · 2001ko iraila/IX. urtea/375. zkia


# elkarrizketa



AGIAN INOR GUTXIK JAKINGO DU ZERGATIK EGIN DEN EZAGUNA GIZON HAU. NAFARROAN AITZUR JAURTIKETA TXAPELKETA EGITEN DUTELA JAKINGO DUENIK IZANGO DA , ORDEA, ELGOIBARREN. BADA, BERA IZAN DA AURTEN BETERANOEN MAILAN IRABAZLEA. INDARRA ETA TEKNIKA DITU LAGUN JOSE ARENASEK. GUREKIN INDARTSU EZ, BAINA LUZE HITZ EGIN DU ZALETASUN BITXI HONI BURUZ.

## Jose Arenas

"BERRIRO ERE AITZUR JAURTIKETAKO TXAPELDUNIA IZATEA LORTU DUT AURTENN

ALBACETEKO HERRI BATEAN JAIO ETA OSO GAZTEA ZELA ETORRI ZEN HONA. ELGOIBARTARTZAT DAUKA BERE BURUA BAINA UDAN NAFARROAN IZATEN DA EMAZTEAREN HERRIAN ETA JAIETARAKO ITZULIZEN DA BETL AURTENGO TXIKI EGUNA BEREZIA IZAN DA JOSE ARENASENTZAT, BAINA EZ GURE HERRIAN OSPATU DUELAKO, NAFARROAKO MARCILLA HERRIAN BAIZIK. BERTAKO GAZTELUAN URTERO EGIN OHI DUTE AITZUR JAURTIKETA TXAPELKETA ETA AURTEN, DUELA HAINBAT URTE BEZALAXE JOSE BERA IZAN DA BETERANOEN MAILAKO IXAPELDUN. INDAR HORI BEREZKOA DUEN ALA AITZURRA HORREN URRUTIRA BOTATZEKO ENTRENAMENDU BEREZIRIK EGITEN DUEN GALDETU DIOGU ARENASI BESTE HAINBAT GAUZAREN ARTEAN. BEREZIA DA BAI KIROL EDO ZALETASUN HAU ETA ELGOIBARREN INOR ANIMATUKO BALITZ TALDE BAT SORTZEA POSIBLE IZANGO LITZATEKEELA ERE ESAN DIGUJOSEK.

# Jose Arenas

## “Aitzurra jaurtitzeko



I Albacetekoa zara jaiotzez, ezta?

Bai, hala da. Oso gazterik, 16 urte nituela, etorri nintzen Elgoibarrera lan bila. Baina hainbeste urteren buruan erabat elgoibartar sentitzen naiz, ia mantxatarra baino gehiago. Hemengo lagun koadrila daukat, hemen egiten dut lan eta herritarrek ere bertakotzat naukatela uste dut.

I Gutxi izango da herrian zure zaietasun bitxiaren berri duenik.

Bada aitzur jaurtiketan ibiltzen naizela dakien jenderik. Batzuek entrenatzen ikusi naute. Hala ere entrenatzen ari naizenean jendea datorrela somatuz gero, disimulatzen saiatzen naiz. Beste batzuk telebistaz edo egunkarietatik jakin dute ni honetan ibiltzen naizela.

I Nondik datorkizu zaletasun hau?

Udan Nafarroara joaten naiz, emaztearen herrira. Bertakoa da Marcillan aitzur jaurtiketan urte askoan txapeldun izan zen gizon bat. Laguna dut eta noiz edo noiz berarekin joaten nintzen entrenatzera. Askotan aitzurra bera baino urrunago botatzen nuen. Bera erretisatu artean txapelketara ez aurkezteko esan zidan, bestela, irabazle postua kenduko niola-eta. Halaxe egin nuen bera erretiratu zenean nik hartu nion erreleboa, orain dela sei urte inguru-edo. Aurkeztu eta beteranoetan txapeldun izan nintzen. Urte batzutan ez naiz joan eta aurten berriz ere izan naiz lehenengo,

Entrenatzeko modu berezirik al duzu?

Zelai batera joan eta aitzurra jaurtitzea da modu bakarra. Abuztuan opon̄ak izanez gero, hilabete osoa ematen dut prestatzen. Azken urteetan ez dut prestatzeko denborarik hartu eta galtzekotan nahiago izan dut ez aurkeztea. Aurten berriz ere saiatu naiz eta ongi atera zait.

I Indarraz gain zer behar da aitzur jaurtiketan aritzeko?

Indarra da garrantzitsuena. Horretaz gain teknika piska bat ikastea ere komeni da, aitzurra jaurti aurretik besoari bueltak eman behar zaizkio altuera abalik eta garaiena hartu eta zenbat eta urrunago heldu hobe baita. Jaurtitzailea altueraz garaia izatea hobe da, hegaldia luzeagoa izango baita.

# ndarraz gain teknika ere behar da"

**Zein ezaugarri ditu aitzurrak?**

Nafarroako erriberan esparragoak-eta landatzeko erabiltzen duten ohiko aitzurra da, han "rabiosa" deitzen diote. Hemengo aitzurrekin konparatuz badu ezberdintasunik, karratuagoa da. Askok arina dela uste arren, eskutan hartu arte ez da jakiten zein astuna den, hiru kilotik gorako pisua du. Han ortuan erabiltzen dute, baina nik botatzeko besterik ez dut erabiltzen, lehiaketarako.

**Beste inon egiten al da horrelako lehiaketarik?**

Marcillakoaz gain, Espainian beste nonbaiten ere egiten omen dute, baina han ez naiz sekula aurkeztu. Bestalde, nire herrian ere, Albaceten, ere antolatzeko asmoa dutela uste dut eta araudia Marcillan eskatu dut era egokian prestatzeko.

**I Eta Elgoibarren?**

Bada aitzurra jaurtitzea probatuko lukeela esan didan elgoibartar bat, eta beste batzuk taldea sortzea ere proposatu didate. Txapelketara jende asko lagun taldearekin joaten da eta animo asko jasotzen dituzte. Gazteluaren inguruan txapelketa ikusten jende asko egoten den arren, ezagunen animoen falta somatu dut nik. Etxekoak inoiz etorri izan dira, baina aurten bakarrik joan naiz, eta azkoitiar batekin egin nuen topo

"ORA1N ARTE EG1N DUDAN MARKAR1K ONENA 27 METROKO JAURT1KETA IZAN DA, ETA ERREKORRA 30 METROTAN DAGO"



"TKAPELKETAKO AITZURRA NAFARROAKO ERRIBERAN ESPARRAGOAK LANDATZEKO ERABILTZEN DUTENA DA, HAN "RAB1OSA" DEITZfill DIOTENA "

bertan. Elgoibarko jaietan izaten da Marcillako txapelketa, beraz, zaila da elgoibartarrak ni animatzera etortzea, aurten gainera Txiki Egunean tokatu da.

**Telebistan eta egunkarietan ere agertu omen zara inoiz.**

Bai, oso lehiaketa bitxia denez kamara eta kazetari asko egoten da Marcillan. Lehen aldiz irabazi nuenean leku askotan atera nintzen, baina aurtengoan ez du hainbesteko oihartzunik izan. Gainera, izena ematerakoan nortasun agiria eskatu zidaten eta bertan Albaceten jaioa naizela jartzen duenez, asko ez ziren ohartu nor nintzen, aurrez elgoibartar moduan aurkeztu bainuen nire burua txapelketan.

**Honen antzeko beste zaletasun bibdrik ba al duzu?**

Ez, hau da bakarra. Gaztetan txirrindularitza nuen gogoko eta afizionatu mailan aritu nintzen. Orain, berriz, mendira ateratzea gustatzen zait. Igandetan, libre dudan egun bakarrean, ehizara edo paseatzera joaten naiz inguruko mendietara. Aitzurrarena, beñiz, uda partean egiten dudan bitxikeria bat baino ez da.

**Noiz arte jarraitzeko asmoa daukazu?**

Urteren baten txapelketara aurkeztu eta galduz gero, laga egingo dudala uste dut. Adinak ere ez du barkatzen eta urtean-urtean marka laburtuz joan naiz. Orain arte egin dudan markarik onena 27 metrokoa izan da eta errekorra 30 metrotan dagoela uste dut. Maila bat baino gehiago dago txapelketan eta ni beteranoetan aritzen naiz. Beste kategorietan pisu jaurtiketako profesionalak-eta aurkeztu izan dira, bizitza kirol horretatik ateratzen dutenak. Nik lanak aukera ematen didanean entrenatzen dut bakarrik.



# atzera begira

## pausoz pauso



- 1945eko ekainaren 6an jaio zen Albaceteko El Viso herrian

- 16 urte zituela etorri zen Elgoibarrera lan bila eta lantegi askotan ibilitakoa da Jose. Orain makinak puntuan jartzen aritzen da. Lan fina egiten duela esan digu, indarrik eskatzen ez duten horietakoa.

- Elgoibartartzat dauka bere burua, 40 urte luzez bertan bizi ostean nork ez luke horrelakorik esango.

Lagun koadrilarekin ibiltzea gogoko du. Gure Bide elkarteko bazkidea da, baita zuzendaritzan egondakoa ere. Txirrindularitzarekiko zaletasunak eraman zuen bertara. Gaztetan 2. mailako afizionatuekin aritutakoa da.

- Beste zaletasunik ere badu, ordea, mendian ehizan ibiltzea edo perretxikoak biltzen paseatzea gustatzen zaio.

- Dudarik gabe zaletasunik bitxiena orain dela sei urte erakutsi zuen jende aurrean: Aitzur jaurtitzen abila da Jose eta Marcillan urtero egin ohi den txapelketan aurten beteranoetan lehen saria eskuratu du.

- Nafarra du emaztea eta hiru alabaren aita da. Bere emaztearen herrian sortu zitzaion aitzur jaurtiketarako zaletasuna, eta familiakoak txapeldun bat etxean izanda gustura omen daude.

## besteen ahotan

Fran Salazar Jose Arenasen koadrilako laguna da eta berari buruz hainbat hitz esateko eskatu diogu. Josek aurten Marcillara berarekin joateko gonbitea egin omen zien koadrilako lagunei baina ez dira joan. "Txiki Egunean izan zen txapelketa eta ezin herrian hain esanguratsua den egun bat galdu. Hala ere, badaukagu noizbait Jose aitzurra botatzen ikusteko gogoa".



Oso lagun ona dela esan digu Franek eta giro guztietaro erraz moldatzen den horietakoa. "Gizon jatorra da eta edozein tokitara berarekin joateko modukoa; berdin txikito batzuk hartzera eta baita mendira, ehizara edo perretxikutara. Lagun giroa gustuko du eta maiz joaten gara afaltzera".

Jose Arenasi buruz hitz onak baino ez dizkigu esan Fran Salazarrek. "Badaezpada ere, berari gustatuko ez zaion zerbait esanez gero, hankatik keldu eta aitzurra bezala botako nau bestela. Ez da gizon txikia eta indarra ere sobera du, baina ez dut uste horretara ausartuko litzatekeenik, ez da horren gaiztoa".

Ea Jose datorren urtean ere Marcillako txapelketara aurkezten den eta koadrilako lag nak animatzera joaten diren.

# informazioa

